



Bizkaiko gurasoen elkartea

BIGEN FEDERATUTA DAUDEN IGEEI ZUZENDUTAKO ESKOLAZ KANPOKO JARDUERETAKO MONITOREAK KONTRATATZEKO ZERBITZUA Zerbitzuaren baldintzak 2018-2019

IGEAK

1. IGEak IFKa izan behar du eta BIGE Gurasoen Elkartean federatuta egon behar du.
2. IGEak aukeratzen ditu monitoreak.
3. IGEaren lehendakariak kolaborazio hitzarmena sinatuko du federazioarekin.
4. IGEak bere gain hartuko ditu kontratazioaren gastu guztiak (soldata, hileroko kudeaketa gastuak, kontratu hasiera eta amaierako gastuak), baita alta eta baja tramiteen gastuak eta kaleratze kalte-ordainak eta abar.
5. IGE bakoitzak monitore bakoitzaren datu pertsonalak eta kontratuaren baldintzak (lanaldia, hasiera-data eta kontratu-amaiera, soldata garbia eta asteko ordutegia...) jasotzen dituen datu-fitxa bete eta BIGEn aurkeztuko du. **Informazio guzti hau, kontratua hasi baino 10 egun lehenago heldu behar da Federaziora.**
6. IGEak , monitorearekin adostu ondoren, kontratuaren baldintzak ezartzen ditu. Baldintza horiek lanbide arteko gutxieneko soldata errespetatu behar dute.
7. IGEAk monitore guztiei jakinaraziko die kontratuaren hasieran eta amaieran BIGEn sinatzeko beharra dutela.
8. Era berean, IGEak monitore guztiei gogoraraziko die kontratua sinatzerako orduan **sexu izaera delituen ziurtagiri negatiboa** aurkeztu behar dutela.
9. IGEak langilearen zereginen, ordutegien... jarraipena bereganatzen du.
10. IGE bakoitzeko Zuzendaritza Batzordeak pertsona bat ezarriko du espresuki ardura hau betetzeko. Pertsona horri dagokio kontratuen edozein aldaketa jakinaraztea eta federazioarekin kontaktu iraunkorra izango du. BIGEk antolatzen dituen informazio bileretara joan beharko du eta IGEaren eta federazioaren arteko komunikazioaren

arduraduna izango da. **Pertsona horrek idatziz bidalitako jakinarazpenak soilik hartuko dira kontuan.**

11. IGEaren eta BIGEren arteko komunikazio egokia bermatzeko edozein aldaketa edo informazio garrantzitsu idatziz jakinaraziko da (gisasi@bige.eus).
12. Jarduera honetarako posta elektronikoko berezia emango dio IGEak BIGEri (adibidez: ampaburdintxi.monitores@gmail.com)
13. Jarduerak kontratatutako monitoreek emango dituztela bermatzen du IGEak. Ez bada holan, jarduerak kontratatutako ez dauden pertsonen ematen badituzte, IGEA arduraduna izango eta honen ondorioz sortzen diren zigorrak bete beharko ditu.
14. IGEak monitorean lan hitzarmenaren hasiera eta amaierako datak zehaztuko ditu.
15. Lanaldi partzialeko kontratuk izango dira, zerbitzu edo obra-kontratu modalitatean (501).
16. Gaixoaldi-baja, lan istripu-baja, istripu-baja ematen direnean **federazioak ez du ordezkorik ezartzen beraz IGEak berak bilatu beharko luke** nahi izanez gero. Kasu horretan berehala federazioarekin kontaktuan jarri eta kontratazio berria egiteko prozedura abiatu beharko luke.
17. **Monitoreek baja hartzen dutenean, parteak (baja, alta...) 3 egunen buruan BIGEn aurkeztu behar dituztela** gogoraraziko die IGEak.
18. Monitorearen kontratazioa dela eta, gastu berriak sortzen badira (kontratu berriak, kontratu handitzeak,...) IGEa izango da arduraduna.
19. Kontratuaren edozein moldaketa 5 eguneko aurrerapenaz jakinaraziko du BIGEn IGEak ezarritako ordezkariak eta 14,52€-tako euroko kostua izango du moldaketa bakoitzak.
20. IGEak kontratazio zerbitzuak hilabete horretan eragindako kostuak zehaztuko dituen txostena jasoko du hilabete bakoitzaren amaieran. IGEaren arduradunak txostena aztertu eta 48 ordu izango ditu edozein akats jakinarazteko.
21. IGEek, behin sosten ekonomikoa jasota, 3 eguneko epean, derrigorrez sartu beharko dute BIGEren kontu zenbakiean, dagokien diru kopurua. Hilaren 30a baino lehen sartuko dute.

BIGE

1. BIGEk kontratazio zerbitzuaren gaineko interesa duten IGEei informazio osoa eskainiko die.
2. BIGEk monitoreen kontratazioa kudeatuko du: kontratuak, nominak, altak, bajak...
3. BIGEk Guraso Elkarrekin harremanetan jartzeko pertsona bat izendatuko du eta BIGE eta IGEaren arteko komunikazio bitartekoak jarriko ditu (bulegoan bertan, posta elektronikoz, informazio bilerak...).
4. BIGEk hiru hilean behin bidaliko dizkio monitore bakoitzari bere nominak, posta elektronikoen bidez.
5. BIGEk, hilabete bukaeran, IGEak zehaztutako posta elektronikora bidaliko ditu kontratazio zerbitzuak hilabete horretan eragindako kostuak zehaztuko dituen txostena. IGEaren arduradunak txostena aztertu eta 48 ordu izango ditu bertan ikusten duen edozein akats jakinarazteko.
6. BIGEk ikasturte bukaeran, edo kontratua eteteen, zerbitzuak eragindako zenbateko guztiak jasoko dituen ordainagiria helaraziko dio IGEari.
7. BIGEk aholkularitza eskainiko die IGEei zerbitzuaren garapenean sor daitekeen edozein gairen inguruan.
8. BIGEk bere gain hartuko du prebentzio plana.

MONITOREAK

1. Monitoreek haien datu guztiak egunean izango dituzte IGEan eta edozein aldaketa egotekotan jakinaraziko dute.
2. Kontratua BIGEn sinatzen dutenean **sexu izaera delituen ziurtagiri negatiboa** aurkeztuko dute monitoreek.
3. Monitoreek IGEren gainbegiradaren azpian bere erantzukizunak beteko dituzte. Honek zehaztuko ditu bete behar diren lanak.
4. Monitoreek kontratuaren hasiera eta kontratuaren amaiera BIGEn sinatu beharko dute: Ronda 27, 1. ezk, Bilbao.
5. BIGEk hiru hilean behin bidaliko dizkio monitore bakoitzari bere nominak, posta elektronikoaren bidez.
6. Monitoreak baja hartzen badu (goixotasuna, lan-istripua eta akzidentea), parte medikoa BEGIIn aurkeztuko du 3 egunen buruan nahitaez.
7. Konfirmazio parteak (baja luzatzen den kasuetan) eta alta parteak ere, BIGEn aurkestuko dira.
8. Langile guztiek alta eta baja parteak aurkeztu behar dituzte lan kontratua duten leku guztietan.

MONITORE BAKOITZEKO HILEKO GASTUAK

GUTXI GORABEHERAKO ADIBIDEA

Bizkaiko Esku-Hartze Soziala sektoreko hitzarmen kolektiboan jasotzen den lan saria kontuan izanik egin da aurkezten dugun adibidea, monitoreak 11€ orduko irabaziko luke.

Hilabeteko kostua:

		1h asteko	2 h asteko	4 h asteko
Soldata	S.S. langilea	3,10€	6,20€	12,40€
	IRPF	0,97€	1,94€	3,98€
	Soldata garbia	44,37€	88,74€	177,48€
s.s. empresa		16,51€	33,04€	66,07€
Gestio, prebentzio, kontingentzi ... gastuak		16,70€	20,54€	30,02€
IGErentzako guztira		81,65€	150,46€	289,59€

Kontratua egiterakoan:

Kontratua egitea eta aldaketak	14,52€	14,52€	14,52€
--------------------------------	--------	--------	--------

Kontratu amaieran:

Kitapena.Kontratu amaierako kalte ordaina	11,68€	23,36€	46,72€
---	--------	--------	--------

Beste gestioak, alta emateak, baja emateak ...	7,26€	7,26€	7.26€
--	-------	-------	-------